

"Kontuan izanda emititu ditugun filmek hiru bat hilabete dituztela, pozik gaude publikoaren erantzunagaz"

Durangoko Zugaza zinemark joan zen asteburuan zabaldu zituen ateak berriro. Emilio Ferreras aretoko arduraduna "pozik" dago ikus-entzuleen erantzunagaz. Segurtasun neurriak beteta ekin diote lanari, eta herritarrek maskara ipinita egon behar dute areto barruan. • 12



"Cannesen parte hartuko genuela esan zigutenean egundoko poza hartu genuen"

Irune Gurtubai
Zine ekoizlea • 9



Berbarok udalekuak antolatuko ditu uztailean, talde txikitan banatuta eta segurtasuna zainduta

Durango | Osasun krisiak eraginda ezohiko neurriak hartuko dituzte. Umeak zortziko taldetan banatuko dituzte. • 11



Zaldibarko Eitzaga auzoko bizilagunek Arartekora jo dute

Zaldibar | Lau hilabete pasatu dira zaborteia amildu zela eta auzokideek diote instituzioen aldetik "abandonatuta" sentitzen direla. **10. orrialdea**



Durangoko Landako I kiroldegia erabilgarri dago asteleheneetik; hala ere, aurretik lekua erreserbatu behar da

Hainbat segurtasun neurri hartuta, Durango Kirolak-eko bazkideek kiroldegira joateko aukera dute; erabiltzaileek etxetik arropa aldatuta joan beharko dute

DURANGO • J.G./M.Z.

COVID-19ak eragindako egoeraren ondoren, Durangoko Udalak Landako I kiroldegia zabaltzen duen astelehenean. Prebentziorako protokolo zorrotzei jarraituta, Durango Kirolak-eko bazkideak kirol instalazioetara itzuli daitezke dagoeneko.

“Gure kezka nagusia inguru osoko osasuna da oraindino, eta zirkunstantzia bereziek hala eskatzen dutenez, COVID-19aren prebentziorako protokolo bat martxan ipini dugu Osasun Agintaritzaren jarraibideak kontuan hartuta. Horregaitik, instalazioak apurka zabaltzea erabaki dugu, geroago eta kontrol handiagoa izan dezagun”, adierazi dute Durango Kirolak-eko arduradunek.

Hala ere, kiroldegira joan aurretik derrigorrezkoa da ordua hartzea. Erreserba Trainingym App-aren bitartez egin beharko dira. Aplikazioa mugikorrean deskargatu, erregistratu, eta jarduerak/erreserbatu atalean jarduera aukeratu behar da. Bestalde, Durango Kirolak-etik jakinarazi dute, erreserba



Durango Kirolak-eko bazkideak kiroldegia erabiltzen hasi dira berriro.

Kiroldegira joan gura duenak erreserba egin beharko du Trainingym APP-aren bitartez

egin ondoren jarduerara ez doanak ezingo duela hurrengo egun bietan beste erreserbarik egin.

Hartu beharreko neurriak

Asteleheneetik, erabiltzaileek hainbat neurri hartu behar dute Lan-

dako I-era sartzeko. Honako hauek dira hartu beharreko neurrietariko batzuk: jarduera gunera sartu arte maskara ipinita joan behar da derrigorrez; sarreraren tenperatura hartuko dute eta sukarra duena ezin izango da instalaziora sartu;

ez da aldagelarik egongo, eta, beraz, erabiltzaileek etxetik arropa aldatuta joan beharko dute. Gainera, toalla handia (hondartzakoa) eraman beharko dute, zoruan ipintzeko. Spin Bike-eko erabiltzaileen kasuan, toalla bi eraman beharko dituzte, bat bizikleta estaltzeko eta

Pertsonen arteko distantziak errespetatzeko, sarrera-irteerak markatu dituzte

bestea izerdia kentzeko. Toallarik ez daramanak, ezingo du jarduerarik egin.

Horrez gainera, pertsonen arteko distantzia errespetatzea ahalbidetzeko, Durango Kirolak-eko kideek jakinarazi dute erabiltzaileak leku batetik sartu eta beste batetik irtengo direla. Horretarako, sarrera-irteerak markatuta daude. Era berean, zenbait jardueraren ordutegiak moldatu dituzte, sarrera-irteerak errazteko.

Tabirako igerilekuak ekainaren 15ean zabalduko dituzte; Elorriokoak hilaren amaieran zabaltzea aurreikusten dute

Atxondoko 132 herritarrek igerilekuak zabaltzeko "ahalegina egiteko" eskatu diote udalari, baita udalak duen asmoa publikoki jakinaraztea ere

DURANGALDEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Datozen egunetan, igerileku denboraldiari hasiera emango diote Durangaldean. Durangon, ekainaren 15ean zabalduko dituzte Tabirako igerilekuak. Udalak jakinarazi duenez, 1.000 pertsona sartu daitezke gehien jota, eta txanda bi egongo dira. Goizekoa 9:00etatik 14:30era izango da, eta arratsaldekoa 15:30etik 21:00etara. Udalak azaldu duenez, eguerdiko ordubeteko tartea igerilekua desinfektatzeko aprobetxatuko dute.

Bestalde, Internet bidezko erreserba sistema bat ere martxan ipiniko dutela jakinarazi dute. Sistema hori abonatuak baino ezingo dute erabili. 60 urtetik gorakoek telefonoz egin dezakete erreserba.

Elorrion, udalak prentsa ohar baten bitartez jakinarazi du ekaina-

ren amaierarako aurreikusten dutela Elorrioko kanpoko igerilekuak zabaltzea. Hala ere, udalak oraindino ez daki Eleizaldeko igerilekuak zein neurri hartuta zabalduko dituzten, eta hori guztia zehazten dabil.

Atxondon zabaltzeko eskaria

Bestalde, Atxondoko hainbat familiarriko igerilekuak zabaltzeko "ahalegina egitea" eskatu diote udalari: "Badakigu baldintza berezitan eta esfortzu handia eginda izango dela hori, baina beharrezko ikusten dugu". Igerilekuagaz zer egin gura duen ere "lehenbait lehen" publikoki azaltzea eskatu diote udalari: "Aurten igerilekuagaz zer gertatuko den jakin gura dugu. Hainbat zurrumurru dabil bolo-bolo, baina ez dago udalaren erantzun ofizialik, eta, beraz, udalak igerilekuagaz duen asmoa publikoki azaltzea gura dugu", azaldu dute sinatzaileek. Guztira, herriko 132 lagunek sinatu dute udaletxean asteen aurkeztu duten eskaria.



Tabirako igerilekuak astelehenean zabalduko dituzte.

Elorrion oraindino ez dakite igerilekuak zein segurtasun neurri hartuta zabalduko dituzten

Hilabeteko epean bigarren baserri bat bota dute Abadiñon, AHTari bidea egiteko

Muntsaratzagirre baserria botatzen hasi ziren martitzenean

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

AHTko lanak direla-eta, hilabeteko epean bigarren baserria bota dute Abadiñon. Auzotarren esanetan, martitzenean hasi zituzten Muntsaratzagirre baserria botatzeko lanak. Baserrian ez zen inor bizi.

Goxentziagirre ez da Abadiñon bota duten lehenengo baserria. Duela aste batzuk Mendilibar-erdikoa baserria bota zuten, maiatzaren 14an hain zuzen ere. Mendilibar-erdikoa baserriak orain 500 urte inguruko aztarnak zituen.

Mendilibar-erdikoa baserrian jaiotako Roberto Arteagak ANBO-

Orain aste batzuk Mendilibar-erdikoa baserria bota zuten Abadiñoko Mendiola auzoan AHTko lanak egiteko

Tori aitortu zionez, "inpotentzia handia" sentitu zuen baserria botatzen zebiltzala jakiterakoan.

Atxondo-Abadiño tartean, AHTaren obrek ez dute etenik izan koronabirusaren krisian. Maiatzaren 12an Atxondoko Maisuen etxea eraitsi zuten eta AHTrik Ez plataformak hainbat mobilizazio egin ditu herrian.



Martitzenean hasi zituzten Muntsaratzagirre baserria botatzeko lanak.

Atxondoko Udalak bost euroko deskontu bonuak kaleratu ditu herriko komertzioak biziarazteko

Abadiñon irailean ipiniko dute martxan; herriko komertzioek ekainaren 26ra arteko epea dute kanpainara batzeko



Xabier Azkarate deskontu bonuekin.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Diru apur bat aurreztuta, atxondarrek herriko denda eta tabernak bultzatzeko aukera dute. Udalak bost euroko deskontu bonuak ipini ditu herritarren eskura, eta urte amaierara arte baliatu daitezke. Herritar bakoitzak bonu bi hartu ditzake gehienez.

Udalak 8.000 euroko diru partidagaz lagunduko du deskontu bonuetan. Atxondoko komertzioetan hamar eurotik gorako erosketa egin duenak bost euroko deskontua

Atxondon hamar eurotik gorako erosketa egiten duenak bost euroko deskontua izango du

jasoko du. Atxondoko Udalak "ezinbestekotzat" jo du herriko komertzioei laguntzea. "Herriko denda eta negozio txiki guztiei lagundu gura diegu, bertako kontsumoa sustatuta eta ekonomia suspertuta, eta, aldi berean, herritarrei ere lagundu gura diegu deskontu bonu hauekin", azaldu du Xabier Azkarate alkateak.

Abadiñon irailean

Bestalde, Abadiñoko Udalak irailean ipiniko du martxan herriko merkataritza sustatzeko kanpaina. Guztira, 99.260 euro ipiniko ditu horretarako. Bonu kanpaina parte hartu gura duten herriko komertzioek ekainaren 26ra arteko epea dute kanpainara batzeko.

1.000 kilometro egin gura dituzte Aitzol Maortuak kartzelan 18 urte daramatzala adierazteko

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

18 urte dira Aitzol Maortua espetxean dagoenetik. Hori adierazteko, zapatuan Elkartasun Eguna egingo dute Atxondon. Goizean zehar, presoaren herrikide eta lagunak artean 1.000 kilometro egin gura dituzte bizikletan. Apatamonasterioko plazatik irten, Arrazolak Tope tabernara joan eta buelta egin beharko dute ekimenean parte hartu gura dutenak. Buelta bakoitzean, plazako elkartasun panelean fitxa bat ipini beharko da eta 100 fitxagaz panel osoa betetzea izango da asmoa. Parte hartu gura duenak 9:30etik aurrera izena eman beharko du, elkartasun gunean.

arizmendi
ikastola **PRO**

Arizmendi Ikastolaren Lanbide Heziketa



943 77 20 25 • www.arizmendipro.eus • arizmendi@arizmendi.eus

Zure Lanerako Bidea

AURRE MATRIKULAZIOA Ekainaren 1etik 19ra

- GIZARTE ETA KIROL ANIMAZIOAREN IRAKASKUNTZA
- OSASUN LARRIALDIK
- ERIZAINZAKO ZAINZA OSAGARRIAK
- MIKROINFORMATIKA



MATRIKULAZIOA Uztailaren 13tik 17ra

“AEKn aurrez aurreko eskolak emango ditugu urritik aurrera; prest gaude”

Durungaldeko AEK datozen erronkei begirako plana lantzen ari da. Euskaragazko konpromiso sozialari tinko eutsiko dio aurrerantzean ere. Miren Ertzilla euskaltegiko irakasleagaz eta Iker Garate ikasleagaz berba egin du ANBOTOK



DURANGO • EKAITZ HERRERA

Iker Garatek (Izurtza, 1997) autoikaskuntza ikastaroa egin du AEKn. Koronabirusa egonagaitik ere, modu errazean egin du ikastaroa. Miren Ertzilla irakasleak (Durango, 1965) hemendik aurrerako planak azaldu ditu.

AEK-k zelan egin dio aurre itxialdiak ekarritakoari?

Miren Ertzilla: Beste sektore guztietan gertatu den moduan, egokitzapen bat egin behar izan dugu. Ikasleek batez ere, gehienek behintzat ez dutelako baliabide nahikorik horrelako egoera bati aurre egiteko. Dena dela, AEK-k bere ahalegin guztia egin du eta bere burua

prestatu du datorren ikasturteari begira. Osasuna babesteko neurri guztiak betetzera jo dugu, eta hala ari gara gaur egun ere. Gure gelak prest daude ikasleak hartzeko. Durangon eskolak emango ditugu udan. Eta urritik aurrera, euskaltegietan aurrez aurreko eskolak emango ditugu, arazorik barik. Prest gaude. Autoikaskuntzak eta sareko eskaintzak ere aurrera segituko du.

Zu ikaslea zara, Iker. Egun hauetan gertutik ikusi duzu AEK-k egoera berrira egokitzeko izan duen gaitasuna.

Iker Garate: Bai, autoikaskuntza moduluan egin ditut ikasketak. Aste birik behin etxerako lanak

jasotzen nituen. Eta handik beste aste bira tutoretza bat jasotzen nuen ikasketen jarraipen bat egiteko. Koronabirus sasoiaren erraza izan da ikasketei etxetik jarraitzea. Ariketak posta elektronikoko bitartez jaso ditut eta bideo-deiak eginda argitu ditugu zalantzak. Lehen ere ez nituen eskolak aurrez aurre hartzen, eta koronabirusa ez da oztopo izan AEKgaz lan egiteko. Oso pozik nago. **Esan dezakegu, beraz, AEK-k tinko eutsi diola bere konpromiso sozialari.**

M.E.: Jakina. Horixe da gure helburua eta konpromiso soziala: euskara irakastea, ahalik eta herritarrik gehienei. Egoerak markatu digu zein den gure jarrera eta zelan ego-

kitu behar dugun egoera berrira. Gu beti gaude prest helburuak bete-
tzeko, horretarako egokitzapenak
egin eta jendea prestatu behar ba-
da ere. Horregaz beti aurrera.

"Berrasmatu" berbak inoiz baino esangura handiagoa ote du egunotan?

I.G.: Koronabirusak ekarriko duen normalitate berri horretara moldatu beharko dugula esango nuke. Hartu-emanak lantzeko moduak eta sozializatzeko espazioak zelakoak izango diren... horrek guztiak gu geu aldatzera eramango gaitu.

M.E.: Honek guztiak teknologiaren bitartez ikastea ere ekarriko du, teknologia geroago eta garrantzi handiagoa duelako irakaskuntzan.

Udako kanpainari buruz, baduzue ezer aurreratzerik?

M.E.: Matrikula zabalik dago, eta, printzipioz, ikastaroak ekainaren 15etik uztailaren 10era izango dira. Ikastaro trinkoak izango dira, 80 ordukoak. Gure ateak zabalik eta prest daude gura duenak izena emateko.

Zein mezu emango zeniekete koronabirusagaitiko errezeloa dutenei?

I.G.: AEK-k egiten duen lana itzela da. Oso irakasle onak ditu. Nik izan dudana irakaslea behintzat oso ona izan da, inoiz izan dudana onena. Gainera, ematen duten eskaintza oso gertukoa da. Jendea AEKra joatera animatuko nuke.

M.E.: Berdin dio zeintzuk diren bakoitzaren maila eta helburua. Kontua euskara ikastea bada, dato-

4

**Beldurra galtzeko
esango nioke jendeari;
horretarako dago AEK,
maila desberdineko
ikasleen artean
ikasteko”**

zela trankil AEKra. Ezohiko egoera honetara moldatu ahal izateko plan bat osatzen ari gara. Baita urritik aurrera etorri daitezkeen erronkei aurre egiteko ere. Interesa duten denak lasai etorri daitezke AEKra. Euren neurrirako eskaintza egiten ahaleginduko gara.

Bada gaineratu gura zenuketen beste ezer?

I.G.: Euskara dut ama-hizkuntza, baina AEKren mintza-saioak eta idazlanekin egin ditudan lanketak primeran etorri zaizkit. Idazketa zen nire hutsune nagusia, eta hemen ikasitakoagaz dohain asko garatu ditut. Beldurra galtzeko esango nioke jendeari. Horretarako dago AEK, maila desberdineko ikasleekin hartu-emana izan eta elkarrengaz ikasteko. Gertutasun handia eskaintzen du eta mintza-praktika saioetan asko lagundu dit horrek.

M.E.: Horixe da, hain zuzen ere, politena. Gutxi dakienak asko dakienarengandik ikastea; eta asko dakienak gutxi dakienari laguntzea.

anboto 

**Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558**

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2020ko ekainaren 12a
18. urtea - 811. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabari.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta
 Goretzi Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba
 Derteano Bilbao, Maialen Suazubiskar Gallastegi,
 Aritz Maldonado Zabala.
Maketazkia: Bea Sierrasesumaga Guezuraga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxeigibel.

2015 **ikain**
euskarearen
kaltate zundakoa
certificado de calidad
en la gestión lingüística

 PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako
iturrietako materialez
egina dago, birziklatua
da eta Baso Kudeaketa
Iraultzaeraren
ziurtagiria dauka
www.pefc.es
PEFC/14-30-00225



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Eitzaga auzoko bizilagunek Arartekora jo dute eta "abandonatuta" sentitzen direla diote

Kezka handia dute, Etxebarri baserriaren atzean eraiki duten biltegia behin betikoa izango ote den susmoa dutelako



Eitzaga auzoan egindako mobilizazio bateko argazkia.

ZALDIBAR • JONE GUENETXEA

Lau hilabete pasatu dira Zaldibar-ko Eitzaga auzoan dagoen Verter Recycling zabortegea amildu zenetik. Hondakinen artean, Alberto Sololuze eta Joaquín Beltran behar-

ginen bila jarraitzen dute. Bestalde, amildutako hondakinak egonkortzen ere badabilta.

Auzokideek hasieratik sufritu dituzte lur-jausiaren albo kalteak. Hainbat bider elkarrizketatu dira

Eusko Jaurlaritzagaz eta Zaldibarko Udalagaz, baina "abandonatuta" sentitzen direla diote. Maiatzaren amaieran, auzokideek Arartekora jo dute euren kezken berri emateko. "Oletxe baserriko familia bi

oraindino euren etxera bueltatu barik daude", azaldu du Oskar Morales auzokideak. Eitzagatarren beste arduretariko bat auzokideen osasun egoera da. Zaldibarko auzo honetan bizi direnek diotenez,

azkenengo zortzi urteetan hainbat sute sortu dira hondakindegian. "Aire hori arnasten egon gara eta gure osasunari buruzko jarraipen bat egitea eskatzen dugu", diote auzokideek.

Hondakinak pilatzeko Etxebarri baserriaren ondoan sortu duten biltegia ere kezka iturri dute. "Behin-behineko biltegia izango zela esan ziguten, baina susmoa dugu zabor hori hortxe geldituko dela, Etxebarri baserriatik 110 metrora", azaldu dute bizilagunek. Era berean, ka-

"Gure osasunari buruzko jarraipen bat egitea eskatzen dugu", diote auzokideek

mioiak auzotik pasatzen hasi ziren biltegi horretara heltzeko. Orain kamioi "gutxi" pasatzen dela diote, baina posible dela momenturen batean joan-etorriak ugaritzea.

Bestalde, Zaldibar Argitu plataformak hainbat mobilizazio antolatu zuen joan zen zapatuan Zaldibarren, Zallan, Elgetan, Eibarren, Ermuan eta Markinan, zabortegea amildu zela 4 hilabete pasatu direla gogoratzeko. Desagertutako langileak gogoratu zituzten.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

2020-2021

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK

Izen-ematea

Ekainaren 1etik 19ra

Eskaintza akademikoa

- Automatizazioa eta Robotika Industrial
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrial

www.mondragon.edu/gmh
onarpena.lhm@mondragon.edu
664 298 704 • 664 298 683

“Bizikleten mugikortasunerako azpiegitura egokia balitz, herritarrek gehiago mugituko lirateke bizikletan”

Iker Berra bizikletan joaten da egunero-egunero lantokira. Ohiturak aldatzea erabaki zuen orain hiru urte. Hamar kilometroko joan-etorria egiten du



Iker Berra Dorronsoro
Egunero bizikletan joaten da lantokira

Tolosa | 1975

eta gasolinatan ere aurrezten dugu. Gastu batzuk kentzen ditugu. Bizikletan, azken finean, hankak dira premiazkoak.

Eta zein alde negatibo du egunero bizikletan mugitzeak?

Batzuetan nagikeria sortzen duela! (barrez). Garajetik irteten duzunean eta euria barra-barra ari duela ikusten duzunean, zeure buruari esaten diozu: "Baina zertan ari naiz?". Baina, tira, behin martxan ipinita oso gustura joaten naiz.

Errepidean, euria ez da arazo bakanarra. Dabilen trafikoa ere arriskutsua izango da.

Egia esan, ez dut errepide nagusia askorik ukitzen. Kontuan hartu Zelaieta pasatu eta Lebario aldetik joanda, lantokirainoko azken tartea baino ez dudala errepide nagusitik egiten. Zati hori apur bat arriskutsua da, baina bide-bazter zabala du. Dena dela, orain arte behintzat ez dut sekula arazorik edo sustorik izan.

Zure eguneroko ohitura hau Durangaldeko eta Euskal Herriko herritarrentzat ispilu izan daiteke? Lantokira bizikletan joatera animatuko zenuke jendea?

Bai, baina iruditzen zait errepi-deak egokitu egin beharko liratekeela. Ez daude batere prestatuta. Nik egindako ibilbidean, adibidez, ia ez dago bidegorririk. Errepi-deak eta azpiegiturak prestatu beharko lirateke bizikleta bidezko mugikortasuna errazteko. Euskal Herrian ez gaude batere ondo prestatuta.

Iruditzen zaizu azpiegiturak hobetuko balira, herritarrek gehiago mugituko liratekeela bizikletan?

Baietz esango nuke. Ez dakit neguan zer egingo luketen, baina, orokorrean, erantzun positiboa egongo litzatekeela uste dut, gehiago mugituko liratekeela bizikletan. Azken finean, beldurra edo errespetua eragiten duena errepide nagusiko trafikoa da. Bertako autoen joan-etorria.

Baina zuk, oraingoz, lanerako joan-etorria bizikletan egiteko ohituragaz jarraitzeko asmoa duzu.

Bai. Oraingoz behintzat, hankek laguntzen didaten bitartean eta osasuna dudan artean, aurrera se-

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Tolosako Amarotz auzoa du sorleku, eta Abadiñoko Muntzaratz auzoa egungo bizileku. Bizikleta gainera igota, egunero egiten du etxetik Berrizko Eitua industrialderainoko joan-etorria. Kirola egiten duen bitartean, diru gastu batzuk aurrezten dituela dio Berrak. Bestalde, Durangaldean zein Euskal Herrian bizikletaren mugikortasunerako azpiegitura egokia ipiniko balitz, herritarrek erabiliko luketela uste du.

Abadiñoko etxetik Berrizko lantokira egunero-egunero zelan joango eta... bizikletan. Zer dala eta?

Behin bizikletan joatea erabaki nuen, udako egun batean. Gustatu zitzaidan esperientzia, eta apurka-apurka egunero joaten hasi nintzen. Nahiz eta batzuetan euria egin, gustura joaten naiz, egia esan. Aurtengoa hirugarren urtea da. Hiru negu egin ditut.

Zenbat denbora hartzen dizu joan-etorriak?

Etxetik lantokira bost bat kilometro daude. Gutxi gorabehera, 15etik 20 minutura bitarteko bidaia izaten da. Muntzaratzetik hasi eta Zelaieta zeharkatzen dut. Lebario aldera pasatzen naiz gero. Gestamp enpresaren inguruak igaro, eta behin Pastor del Gorbea jatetxearen ondora helduta errepide nagusira irteten dut. Handik, errepide bazterretik joanda heltzen naiz lantokira.

Euskal Herriko topiko batek dio gure lurraldea munduko euri guztien iturburua dela...

“

Jendeari lanera egunero bizikletan joaten naizela esaten diodanean, zoratuta nagoela esaten didate”

”

European bizikletan ibiltzea arraroa egin daiteke hasieran, baina behin martxa hartuta gustura joaten zara, eguzkitan lez. Gerritik gora gore-texa duten jantziak eramaten ditut ipinita. Ura iragaztea ekiditen duten prakak ere eramaten ditut. Baita gore-texa duten zapatilak eta eskularruak ere.

Europako hiri batzuetan ohikoa da batetik bestera, etxetik lantokira, bizikletan joatea. Amsterdam izan daiteke ikurretariko bat. Baina hori ez da ohikoa hemen, oraingoz behintzat.

Egia esan, jende gutxi joaten da lanera bizikletan. Jendea iraten esaten diodanean egunero-egunero joaten naizela bizikletan, zoratuta nagoela esaten didate. Batez ere euri egunetan joaten naizenean, edo elurra egiten duenean, edo goizeko zazpitan hotz handia egiten duenean. Ez da ohiko ohitura. Baten bat joaten da lanera bizikletan, baina ez da ohikoena.

Zein alde positibo ditu lanera bizikletan joateak?

Niri on egiten dit. Burua argitzen laguntzen dit eta kirol apur bat egiten dut. Bost kilometro joan, bost kilometro etorri, azkeneko hamar kilometroko saioa egiten dut egunero. Neure buruagaz ondo sentitzen naiz.

Horrela, dirua ere aurreztuko duzula imajinatzen dut.

Bai. Lehen, beste auto bat ere bagenuen, baina kentzea erabaki nuen. Orain, modu honetan, ez dugu aseguruak ordaintzen. Auto-ko gorpil-azalak ez dira gastatzen

“

Burua argitzen laguntzen dit eta kirol apur bat egiten dut; neure buruagaz ondo sentitzen naiz”

”



Gremioen gida

anboto

 **Zurgintza**

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

 **Iturgintza**

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

Instalatzaila baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

 **Iturgintza**

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA • Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

 **Iturgintza**


Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

 **Iturgintza**

ALDEKOA-OTALORA
iturgintza

BEROKUNTZA - AIREA - GASA
INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoaotalora.com

Zubiaine, 8 IURRETA
946 202 768

Arzubia 10 B Industrialdea, 13-14 pabiloiak ABADIÑO
944 071 791 - 692 859 779

 **Zurgintza**

ATERPE AROTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

 **Dekorazioa**

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A • BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 • Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**





Jon Larreategi Arana
Durangoko Kulturala
klubeko entrenatzailea
Eibar (Ermuan
bizi da) | 1984

“Denboraldi-aurrean tekla egokia aurkitu beharko dugu, bestela arrisku handia dago jokalariek lesionatzeko”

Durangoko Kulturalak Jon Larreategi entrenatzailea fitxatu du, aurreko denboraldiko dinamika eskasari buelta eman guran. Larreategik uste du bere ideiak taldearen jokamoldeagaz bateragarriak direla

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Jon Larreategi Amorebieta, Barakaldo, Portugalete eta Bilbao Athletic klubetako jokalaria izan zen bere sasoian. Ondoren, 2016-2017 denboraldian, entrenatzaile ibilbideari ekin zion, Vitoria taldean lehenengo —bigarren entrenatzaile moduan— eta Eibarreko filialean gero. Ohorezko Mailako Amaiak Bat taldetik eman du Durangoko Kulturalerako saltoa. Futbol eskoletan ere lan egindakoa da.

Zelan gauzatu da zure fitxaketa?

Amaiak Bat taldean entrenatzaile nabilela, Joseba Aranak [Kulturalako kirol zuzendariak] deitu zidan. Denboraldia amaituta, libre geratzen nintzen eta berbetan hasi ginen. Egia esanda, segituan heldu

ginen akordio batera. Aspalditik ezagutzen dut Joseba. Amorebieta klubean jokalaria ibili nintzenean, kimuen taldea entrenatzen nuen eta bera harrobi futboleko arduraduna zen. Beraz, bageneukan tratua. Kulturalari behar duen aldaketa hori eman niezaiokeela uste zuen eta asko eskertzen diot nigan ipinitako konfiantza. Baita zuzendaritzari ere.

“

Harrobiak izan behar du taldearen oinarria; nik sekula ez dut arazorik izan etxekoekin lan egiteko”

—

Entrenatzaile hasi aurretik, urte askoan futbolaria izan zara. Konfinamenduak zelan eragin diezaioke futbolari baten sasoiari?

Eragina handia izan daiteke. Esate baterako, Lehenengo Mailako jokalariek, etxe handia dutenez, beste batzuek baino erraztasun handiagoa izan dute ariketa egiteko. Ba, eurentzat gogorra izaten ari bada itzulera, imaiinatu gure mailako taldeentzat. Irailean, bueltatzen garenean, bost hilabete beteko dira baloirik ukitu barik. Askok zaindu beharko dugu denboraldi-aurrea. Astiro-astiro hasi beharko du, eta, beharbada, beste denboraldi-aurre batzuk baino luzeagoa izan beharko da. Tekla egokia aurkitu beharko dugu, bestela arrisku handia dago jokalariek lesionatzeko. **Kulturalaren azkenengo denboraldia eskasa izan da. Zein da hurrengo denboraldira begira ipinita duzun helburua?**

Oraindino goiz da eta ez dugu barbarik egin kirol helburuei buruz. Iaz ez, baina azken urteetako ibilbidea ikusita, Kulturala sailkapeneko goialdean ibili da beti eta horrek izan behar du helburu, *play off* postuen borrokan ibiltzea. **Zelako hartu-eman izan duzu orain arte jokalariekin?**

Denekin berba egin dut telefonoz. Probintzia batetik bestera joateko araudia leunduta, eurekin aurrez aurre egoten hasiko naiz. Edozelan ere, jokalaria guztiak ezagutzen

ditut. Vitoria klubeko entrenatzaile nintzenean, klub biak maila berean zebiltzan eta orduko jokalaririk gehienek jarraitzen dute Kulturalan oraindino. Gainera, entrenatzaileoi beti gustatzen zaigu partiduak bertatik bertara ikustea, edozein aukera sortzen

“

Kulturalak urte asko daramatza modu batera jokatzeko; nik ezin dut hori egun batetik bestera aldatu”

—

denerako prest egon gura dugulako, eta Kulturala etxetik gertuen geratzen zaidan taldeetariko bat da. Hainbat partidu ikusi dut. Beste talderen batek gaz gehiago kostatuko zitzaidan, baina, hain justu, Kulturalaren erradiografia bat eginda neukan aurretik.

Noiz bueltatuko zarete entrenamenduetara?

Uztail inguruan igoerako *play off* ak daude, eta, horien ostean, talde horiei atsedena eman beharko zaie. Esaten dute liga urri aldera hasiko dela, baina oraindino ez dakigu ezer garbirik. Entrenamenduak irailean hasiko direla kalkulatu dugu. Aurten, futbolariak oporrak izango dituzte abuztuan, gainerakoen antzera.

Orain urte batzuk, Kulturalak harrobiaren eta etxeko jokalarien aldeko apustua egin zuen. Zuk baduzu esperientzia harrobiagaz lan egiten, Eibar klubean, esate baterako. Harrobiak zelako pisua izango du zure proiektuan?

Harrobiak eta inguruko jokalariek izan behar dute taldearen oinarria. Nik ez dut sekula arazorik izan etxekoekin lan egiteko. Ekartzen duguna ere ingurukoa izango da, ez gara bila urrun joango. Eibarren kasua desberdina da. Hango irizpidea ahalik eta jokalaririk onenak batzea da, berdin dio ingurukoak ala kanpokoak diren. Gure mailako klubek beste era batera funtzionatu behar dutela uste dut.

Zein jokamolde duzu gustuko? Eraskorra, posizionala...

Ez nuke definitzen jakingo. Esaterako, Debara joan nintzenean, Amaiak Bat taldera, ideia argi bat nuen; banekien jokalariek zelan jokatzeko gura nuen. Baina denboraldi-aurreko lehenengo astean konturatu nintzen ideia hori aldatu beharra neukala. Beraz, Kulturalan ere, gehiago izango da ni euren moldatzea, eurak nire baina. Azkenean, Kulturalak urte asko daramatza modu batera jokatzeko, eta jokalariek automatismo batzuk barneratuta dituzte. Nik ezin dut egun batetik bestera hori aldatu. Alde biek geurea ipintzen badugu, nire ideiak talde honetan ondo islatu ditzakedala esango nuke.

ZINEMAGINTZA • ARITZ MALDONADO
Maiatzaren 12tik 23ra ziren egitekoak Cannesko zine jaialdi entzutetsuaren 73. edizioa. Bertan estreinatu behar zuten 'Limbo'.

Zelan jaso duzue izendapena?

Canneskoa erreferentziatzeko jaialdia da guretzat, bertan aurkeztu den zinema motagaitik, eta hasieratik zen gure helburua. Esan zigutenean, egundoko poza hartu genuen. Apur bat gazi-gozoa ere bada, festibala bera ez delako egingo aurten, baina Cannes etiketa edukitzeak asko balio du, eta pelikularentzat oso baliagarria izango da. Gainera, pelikula 'estreinatu gabea' lez hartuko da, eta, horretara, udazkeneko jaialdietan ere egoteko aukera edukiko dugu.

Zelan hasi zineten proiektu honetan lanean?

Orain hiru bat urte hasiko ginen gidoia garatzen. Benek [Ben Sharrock, zuzendaria] arabiera ikasi zuen unibertsitatean, eta Sirian egon zen urtebetez. Errefuxiatuen inguruan zerbait egitea zuen buruan, eta denboragaz forma hartzen joan zen.

'Limbo'-k zein 'Pikadero'-k testuiguru sozial gogorra dute.

Horixe da guk bilatzen duguna: egiten dugun zinemagaz jendea entretenitzea gura dugu, baina

Irune Gurtubai

Zine ekoizlea
Elorrio | 1987

pentsaraztea ere bai. Gai sakonak jorratzea gustatzen zaigu, gizartearentzat interesgarriak izan daitezkeenak. *Pikadero* ere berdina zen: bikote gazte bat zen protagonista. Leku ezkutu baten bila zebiltzan elkarregaz egoteko, baina ezin zuten, krisi ekonomikoa zela eta. Hemen antzera gertatzen da. Errefuxiatuen gaia oso serioa da eta horixe lantzen da, baina umoreak ere badu bere tokia. *Pikadero* erakutsi genuen antzeko umorea da. **Igarri zenuten presiorik proiektuari ekiterakoan?**

“Gazi-gozoa da, ez delako jaialdia egingo, baina Cannes zigilua edukitzea garrantzitsua da”

Aurten ez da Cannesko jaialdia egingo, baina bertan estreinatzeakoak ziren pelikulek zinemaldiaren zigilua eramango dute, tartean Irune Gurtubai ekoitziriko 'Limbo'-k



Irune Gurtubai, grabazioan.

Nahiko naturala izan zen dena. Geure buruari ezarritako presioa baino ez genuen. Azken finean, *Pikadero* ia industriatik kanpora egindako proiektua izan zen; ez genuen espektatibarik, eta ez genuen inor begira ea zer egiten ari ginen. Gure helburua Donostiako Zinemaldian sartzea zen, eta lortu genuen. Sekulakoa izan zen. Orain,

“**Presioa baino gehiago, 'Limbo' egiterakoan batez ere ardura sentitu dugula esango nuke**”

Limbogaz desberdina da, industriak ere finantzatu duelako, eta alde horretatik ere lan ona egin gura duzu, dirua ipintzen duen jendea ere pozik geratzeko, baita lantalde osoa ere. Alde horretatik, presioa baino gehiago ardura sentitu dugula esango nuke.

Eskozian grabatu duzue, Uist irlan. Zelan joan zen grabazioa?

Atzera begiratzean gertatu ohi den legez, oroitzapen onak gordetzen ditugu. Lantaldeagaz, eta aktoreekin ere bai, oso gustura aritu ginen, baina momentu batzuetan nahiko gogorra izan zen. Eskozia iparraldean dago Uist, azkenengo lur zatia da itsasoan. Grabazioa azaroan izan zen eta ipar haizeak gogor jotzen zuen. Txingorra ere bota zigun eta 10-12 bat orduko grabazio egunak izaten ziren, euripean. Prestatuta joan ginen, mentalizatuta, eta neguko arropagaz, baina gogorra

“**Grabazio gogorra izan zen; ipar haizeak jotzen zuen eta 10-12 bat orduko grabazio egunak izaten ziren**”

izan zen. Pelikulan hori ere ikustea espero dugu, hori igartzea ere gura genuen eta. Horregaitik aukeratu genuen Uist.

Aktore profesionalekin eta errefuxiatuekin lan egin duzue.

Guretzat oso garrantzitsua zen errefuxiatuekin lan egitea. Hasieratik lan egin dugu Eskozian bizi diren hainbat errefuxiatu siriarregaz. Lau protagonista nagusiak aktoreak dira; gaztetan Erresuma Batura bizitzera joandako aktoreak dira. Ez dira errefuxiatuak, baina 10-12 bat urteagaz beste herrialde batera joan behar izan zuten eurek ere. Agertzen diren gainerako errefuxiatuak benetakoak dira, egun Eskozian bizi direnak.

Zein ibilbide izango du 'Limbo'-k hemendik aurrera?

Oraingoz, ez dakigu seguru. Ea koronabirusak ez duen eraginik udazkeneko festibaletan. Gure itxaropena Donostiako Zinemaldian eta Torontoko TIFF jaialdian egotea da.

Baduzue beste proiekturik esku artean?

Egia esateko, ez. Koronabirusaren kontu guztiak *Limboren* azken kontu batzuk prestatzen harrapatu gintuen, eta horrek dena mantsotu du. Orain gutxira arte horregaz ibili gara. Baditugu ideia batzuk, eta horiek lantzen gabiltza, baina ez dugu hautatu zein izango den hurrengo pelikula. Horretan gabiltza.

DIBA
KOOPERATIBA

Durangaldeko
Baserritarren
Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

R.P.S. 214/06

A. Urreta
podólogo

Adinara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 beheka - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404



Tokiko hedabidea

Tokiko dendetan

Krisiaren ondorioz, ANBOTOko informazio zuzena zuzenean ANBOTOko webgutunaren bidez jakinaraziko da (anboto.org). Lurralde bakoitzeko hedabidea eta dendak bere erreferentzia zuzena emango du argitaratzen jarraituko dugun bakoitzaren puntuetan:

ANBOTOren banaketa puntuak:

ABADIÑO / MATIENA SOLOKOA (Goretti janari denda) (Zelaieta) ARRIAUNDI OKINDEGIA (Muntsaratz) GOZOKARS (Muntsaratz) PETITE PRENTSA DENDA (Matiena) ATXONDO KIOSKOA BERRIZ ETXEBARRIA ESTANKOA EGUN ON OKINDEGIA	DURANGO ETXEBARRIA PRENTSA DENDA IKERFER PRENTSA DENDA OPEN SHOP (Askatasun etorbidean) BIZKARRA OKINDEGIA (Alluitz kalean) KIOSKO PRENTSA DOMINGUEZ (Komentukalea) GOZATU OKINDEGIA (Ermodo 11) EGUN ON FRUTA DENDA (San Ignazio auzunea 3) ALBERDI OKINDEGIA (Zeharmendieta 7, San Fausto) IBAIZABAL IKASTOLA - TABERNA	ELORRIO ILLARGI PRENTSA DENDA ROSARIO CEA FRUTA DENDA ORBELA DENDA MATZORRI OKINDEGIA MAIRU DIETETIKA GARAI HERRIKO TABERNA IURRETA URKI PRENTSA DENDA IURRETA KOPISTEGIA IZURTZA HERRIKO TABERNA	MALLABIA FARMAZIA OTXANDIO KOROSTONDO JANARI DENDA ZALDIBAR IMENDIA OSTARGI OKINDEGIA (Ogi berri) ZORNOTZA BILLIKEN LIBURU DENDA AYERDI PRENTSA DENDA BIZKARRA OKINDEGIA (Gudari kalean)
--	---	---	--

ANBOTOgaz informazioaren bat partekatu gura baduzu:

✉ astekaria@anboto.org ☎ 88 63 50 41

Berbarok udalekuak antolatuko ditu uztailean, talde txikitan banatuta eta segurtasuna zainduta

Ohiko jolas eta ekintza asko "berrasmatu" egin behar izan dituzte, segurtasun protokoloa bete ahal izateko



Ohiko eredu birmoldatu eta zortziko taldeetan banatuko dituzte gazteak; talde bakoitza hezitzaile baten ardurapean egongo da.

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Berbarok hainbat adin tarteri bideratutako udalekuak antolatuko ditu uztailean. Osasun krisiak eraginda, bertan behera utzi behar izan dute ohiko formatua, baina beste bat diseinatu dute, errealitate berrira egokitutakoa, segurtasun protokolo bati jarraituta garatuko dena.

Eskaintza lau asteren barruan egingo dute, ekainaren 29tik uztailaren 26ra, eta ahalik eta adin tarterik zabalenera heltzen ahalegindu dira. Horrela, lau asteetako bakoitza adin tarte bati bideratzea erabaki dute. Lehen Hezkuntzako gaztetxoekin hasiko dira, ekainaren 29an, eta azkenengo astea DBH 1 eta DBH 2 mailako gazteekin

amaituko dute. Adin horretatik gorakoak eta beheakoak aisialdi eskaintzatik kanpora uztea erabaki dute. 6 urtetik beherakoen kasuan, "ez dago adin tarte horretara bideratutako protokolorik", Markel Sanchez Berbaro elkarteak kudeatzaileak adierazi duenez. Nagusie-

Udalekuak izango diren lau asteetako bakoitza adin tarte batera bideratzea erabaki dute

nen kasuan, ez dute uste formatu eraberritua haien erakargarritasun denik, goizetara bakarrik mugatuta dagoelako eta udaleku ibiltarie-

tan euren kabuz ibiltzera ohituago daudelako.

Udalekuak Durangon egingo dituzte, goizetan: 09:00etatik 13:00etara. Astearen behin, egunetan, egun osoan irteera bat egingo dute. Horrez gainera, bi adin tarte nagusienei begira, Gaubela izeneko ekimena antolatu dute martitzene-tarako. Gazteak iluntzeetan elkar-tu eta ekimenen bat egingo dute goizeko ordutegitik kanpora.

Segurtasuna zainduz

Udalekuak segurtasun protokolo bati jarraituta antolatu dituzte. Esaterako, gazteak zortziko talde txikitan banatuko dituzte eta talde bakoitza hezitzaile baten ardurapean egongo da. Horrela, lau

UDALEKUEN GAINEKO DATUAK

NOIZ:

- Ekainaren 29tik uztailaren 24ra.

ADINKA BANATUTA

- Ekainaren 29tik uztailaren 3ra: LH 1 eta 2.
- Uztailaren 6tik 10era: LH 3 eta 4.
- Uztailaren 13tik 17ra: LH 5 eta 6.
- Uztailaren 20tik 24ra: DBH 1 eta 2.

IZEN-EMATEA

- NOIZ: Ekainaren 16tik 18ra (18:30-20:00)
- NON: Durangoko AEKn (Santanoste kalea, 4).
- PREZIOA: 85 euro.

taldeen artean ez da kontakturik egongo eta talde beraren barruko hartu-emana "ahalik eta gehien murrizten" ahaleginduko dira, Sanchezen esanetan. Horrez gainera, ekintzetan erabilitako materiala egunero desinfektatuko dute eta udalekuek parte-hartzaileek maskara ekarri beharko dute etxetik egunero.

Jolasak "berrasmatzen"

Aisialdi eskaintza diseinatzea erronka bat izan dela onartu du Berbaro elkarteak kudeatzaileak. "Ohiko ekintza eta jolas asko berrasmatu egin behar izan ditugu. Jolas kooperatiboak izaten jarraituko dute, baina kontaktuak saihestuta", adierazi du Sanchezek.

Geure Durangaldea

Josune Aranguren Zatika
Filosofa



Normaltasun berria

Astearteko Berriako titularra: Hego Euskal Herriko «normaltasun berrirako» araudia onartuko dute gaur. Hegoak zabaltzean lehengora itzuli nahi/behar/ahal dugun ez nago seguru.

Normaltasun hitzak ez du irudi bera guztion begietara ekartzen erreferenteen mundutik. Batzuek tabernak beteta eta beste batzuek tarte zabalekin irudikatzen dituzte normal entzutean. Umeak koltxonetat saltoka eta garrasika batzuek, umeak museoetan isil eta trankilago bestek. Gazteenen kale zurruta monumentuen oinetan, plazetan eta mendian batzuek eta gazteak alternatibaren sorkuntzan hango haiek. Aisialdiaz gozatzeak ez du esanahi jakinik.

Asteartera arte ez ditugu irudikatu gure herrietako kaleetako aisialdia, harremanak, ohiturak eta jarrera aldatuak? Astea joan astea etorri, begiak zabalago baltokiratu ditugu, zabalago harriduraz eta zabalago argitasunez: boteredunen motibazio ekonomikoa, planetaren hauskortasuna, bizimoduaren aldagarritasuna... Zertaz ez ote gara jabetu.

Kezkatzekoa iruditzen zait geure bizitzaren kontrolik ez izatea zein erraz eta pozik barneratu dugun. Osasun kontuez haratago -betidanik Akilesekin orpotik eraso digute-, bizitzako alor guztietan erabakitzeak eskumena onartu diegu: aipatu aisialdiaz eta baita sexualitateaz ere. Osasun agintaritzaren gomendioei jarraituz, segi dezagun lehengo normaltasunera. Dekretuz.

Hau ere gure esku dago. Historiara begiratu gero, krisialdietatik eraldaketa datorrela ikusi dugu. Gogoetetatik ikasi dugunaz eraikitzeak aukera da.

<http://josunearanguren.blogspot.com/>

C E R A M I C A S
MACOBER

**ZERAMIKA ETA GRESA
DEKORAZIOA ETA APAINKETA
ERAIKUNTZAKO MATERIALA**

1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA *Etorri eta ikusi*

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com

 **Seguros Bilbao**

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda
Landako etorbidea, 1 DURANGO

ORDUTEGI BERRIA: Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 15:30era
Zenbaki hauetan emango diogu lehentasuna bezeroari: 946 20 27 10 / 688 86 11 37

Egunero eskainiko dizugu gure arreta ondorengo helbidean: jrueda@segurosbilbao.com

“Film interesgarriak ditugula ikusten duenean, jendeak zinemara etorri gurako duela uste dugu”

Durango Zinematografoa 1927an sortu zen; tartean krisi ugari bizi izan duen arren, bere burua berrasmatzen jakin du



Emilio Ferreras Santos
Zugaza zinema
Durango | 1971

DURANGO • JONE GUENETXEA

Zugaza zinemak joan zen barikuan atearak zabaldu zituen berriro. Emilio Ferreras zinemako arduraduna pozik dago erantzunagaz.

Zelan joan da normaltasun berriko lehenengo asteburua?

Lasaia izan da, aurreikusitakoaren arabera. Ekaina, uztaila eta abuztua orokorrean ez dira hile onak izaten. Begira ibili gara, eta datuak iazkoak baino baxuagoak izan arren ez dute horren alde handirik. Kontuan izanda emititu ditugun filmek hiru hile inguru dituztela, pozik gaude.

Zein neurri hartu behar izan dituzue berriro zabaltzeko?

Neurri batzuk aurretik ere ezarrita

genituen. Txartelen eta sarrerako kontrolen automatizatuak, esate baterako. Txartela Internet bitartez edo kanpoko makinan hartu dezakezu, eta sarrerako kontrola ere makina bitartez pasatu dezakezu, txartelagaz zein mugikorrarekin. Horrela ez duzu kontakturik beharrik. Garbiketa ere indartu dugu. Bestalde, seinaleak ipini ditugu sarrera-irteerak markatzeko. Saioren artean ere fumigatu egiten dugu aretoa. Aste honetan, aire sisteman lanpara berezi batzuk ipini ditugu, aireko birusak kentzeko. Lehenengo erantzunak iragazki batzuk.

Zelan erantzun du jendeak?

Ondo. Etorri direnak bazekiten zer egin, barneratuta zuten eta. Leku itxi guztietan maskaragaz sartu

behar baduzu, hemen ere bai. Baten batek kontsultatu egin zuen, zalan-tzak argitzeko, baina normal etorri dira. Ez da ezelango arazorik izan.

Zelan sentitu zarete langileak?

Lasai ibili gara. Afaroaren %33agaz hasi gara, eta horixe gura genuen, apurka-apurka hastea. Orain, EAEko zine eta aretoak %60ko afaroagaz zabaldu ahal izango dugu. Hile osoan horrela egon ahal izango gara, eta uztailean %80an, dena ondo badoa.

Zelan dago zinemaren sektorea?

Sektorea gelditu dago. Zabaldu dugun lehenengoetarikoa izan gara gu. Bariku honetan, kate handiren batetik zabalduko da. Gure enpresak herrietako zine txikiak kudeatzen ditu eta oso errotuta daude. Kate

handiek iraungo dutela esango nuke. Oraingoz ez dugu laguntza zuzenik jaso. Berfinantzaketak eta horrelakoak bai hile hauei eusteko, aldi baterako erregulazioa onartu ziguten lehenengo egunetik geldi egon garelako.

Zein aurreikuspen egiten duzue irailera begira?

Eguraldiaren eta estreinaldien menpe gaude. Ekainaren 26an hiru estreinaldi egongo dira, eta guk hirurak izango ditugu. Etortzeko den garrantzitsua uztailearen 10etik aurrera izango da. Hogeita piku Disneyren *Mulan* dago. Abuztuaren beste estreinaldi garrantzitsu batzuk daude. Film interesgarriak ditugula ikusten duenean, jendeak zinemara etorri gurako

duela uste dugu.

Abuztuaren jendea herrian gelditzen bada, ezohiko uda izan dezakezue?

Jende asko beldur izan daiteke oportunitate joateko, eta beste batzuk ezin izango dira joan, bizi duten egoeragaitik. Eguraldi txarra egiten duenean baliteke jende gehiago etortzea.

Krisi hau gaindituko dugu?

Hamarkadak daramatzate zinea akabatu guran. Gu hasi ginenean, VHSaren booma gainditu genuen. Gero, plataformak etorri dira, eta hementxe jarraitzen dugu. Modu horiek oso ondo daude gauza batzuk ikusteko, baina film zehatz batzuk zinemaren ikusi gura ditut, eta bezero askok ere horixe esaten digute.

Kate erraldoiak lehiakide dituzuen

“

Hamarkadak daramatzate zinea akabatu guran. VHSaren booma gainditu genuen”

EMILIO FERRERAS

arren, Zugaza oso errotuta dago eskualdean. Zelan lortzen da hori?

Zentro handiak sortu zituzten aurreko milurteko amaieran. Orain 20 urte, Euskal Herrian herrietako udal zine aretoak zabaldu ziren. Zugaza da mantentzen den zine pribatu bakarra. Jendeak baloratzen du etxetik irten eta zinemara oinez joatea, kotxerik hartu barik. Eta beste batzuek hamar urteko umeak bakarrik bidali ditzakete etxe ondoko zinemara. Hori ezin da egin kate handi batean. Bestalde, zabalkunde handia egin genuen. Areto bat izatetik hiru izatera pasatu gara, eskaintza handituz. Zineaz gainera, hainbat aurkezpen eta ekitaldi egiten dira hemen. Aurreko krisian, gure tarifak merkeagoak direnez, publiko gehiago izan genuen, eta kate handietan jaitsi egin zen ikus-entzule kopurua. Ez da sarreraren prezioa bakarrik. Hemen, gure dendako prezioak edozein litxarrerria dendetako parekoak dira.

Euskara-ikastaroak

ESKAINITZA BEREZIA

AEK-k ireki du datorren ikasturteko aurrematrikula egiteko epea
ESKAINITZA BEREZIA: % 5eko deskontua, ordainketa malguagoa, lehentasuna.
Uztailaren 8ra arte, www.aek.eus webgunean eta AEKren edozein euskaltegitan.

www.aek.eus

DURANGO: Santanoste 4. 94 681 73 49 abarrak@aec.eus | **ELORRIO:** San Juan 23. 94 658 21 11 abizari@aec.eus
ZORNOTZA: San Pedro 3. 94 673 43 70 zornotza@aec.eus



aek euskara praktikoa

datorren ikasturteko
aurrematrikula






ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEKO 14:00AK ARTEKO EPEA

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRIOARRIZAGA, KARMELE Salt
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEKO 14:00AK ARTEKO EPEA



AMEK EZ DUTE
Katixa Agirre
(Elkar)

**Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA**

Gutxienez 15
laguneko taldeentzako



www.plazanbazan.eus
Egilea: Garbine Ubeda (Aiurri)



Engainariak



BiKoizKeta

Pertsonaiak albo batera utzita, badira gutxienez 9 elementu bi irudietan ageri direnak. Ikusten al dituzu?





ANBOTOREN LAGUNAK

Euskarazko hedabideok mundua ikusteko modu propioa dugu, euskaratik eta euskaraz.

Orain, gure komunitatearen konpromisoa inoiz baino beharrezkoagoa dugu aurrera egiteko, euskarazko eta kalitatezko kazetaritza egiten jarraitu ahal izateko. Izan ere, bizi dugun egoera ekonomikoagaz **ANBOTO**ren jarduna kinka larrian dago.

Jarri ezazu zure alea euskarazko informazioa sortzen eta garatzen jarraitu dezagun, Durangaldea ezagutzen, bertan gertatzen denaren berri ematen eta gure ikuskera zabaltzen jarraitu dezagun.

ANBOTOren laguna izan gura duzu?

Urtean **30 euro** ordainduta, **ANBOTO** komunikazio proiektuari sostengua emango diozu.

Bidali mezua: anboto@anboto.org

Deitu: 94 681 65 58

Bete formularioa: www.anboto.org



“Uneibin oso zoriontsu izan naiz, eta pena handiagaz itxi dut”

Mari Carmen Aldazabalek orain 37 urte zabaldu zuen Uneibi gozoki-denda. Denda uda ostera arte zabalik eduki gura zuen arren, konfinamenduaren ondoren itxi behar izan du



ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Mari Carmen Aldazabalek Traña-Matienako eta inguruko herrietako ume eta gaztetxoek ahoak gozatu ditu urte askoan. Orain, baina, 37 urteren ondoren, Uneibi gozoki-dendako pertsiana jaitsi eta beste era batera bizitzea du helburu Traña-Matienan oso maitatua den Aldazabalek.

Horrenbeste urtean herriko umeen topaleku izan den Uneibi gozoki-denda itxi duzu. Zer dela-eta?

Dendagaz uda ostera arte jarraitzea zen nire asmoa. Negua gogorra izaten da hemen, baina uda oso polita.

Beraz, behin uda pasatuta denda ixteko asmoa nuen. Baina konfinamentu sasoian, denda itxita eduki dugunean, hainbat gauza alferrik galdu zitzaizkidan. Orduan, erabaki bat hartu behar nuen: horiek guztiak kendu eta berritzen hasi, edo Uneibi itxi. Eta, azkenean, ixteko erabakia hartu nuen.

Penagaz?

Pena itzelagaz. Azken batean, Uneibi ixteagaz batera hainbat momentu eta bizipen atzean utzi ditut eta.

Zuretzat zer izan da Uneibi?

Niretzat dena izan da. 37 urtean mostradorearen atzean hainbat momentu zoragarri bizi izan di-

tut, gauza polit asko eman dizkit denda honek. Egia esan, azken urteotan denbora gutxiago egiten nuela bertan, goizetan bilobekin egoteko aprobetxatzen nuen eta

“

Herriko umeak izugarri maite ditut, eta eurek ere asko maite nautela esango nuke”

—

arratsaldetan dendara etortzen nintzen. Uneibin oso zoriontsu izan naiz eta pena handiagaz itxi behar izan dut.

Eta herriko umeentzat, zer izan da Uneibi?

Hori eurek erantzun beharko dute, baina esango nuke topaleku bat izan dela. Dendan aulki batzuk izan ditut eta ume askok eta askok arratsaldeak igaro dituzte bertan. Eu-

“

Uneibin entzundako sekretutxoak ezin zaizkio inori kontatu. Umeen eta nire arteko kontuak dira”

ren artean berriketan, baita nigaz berbetan ere. Uneibin entzundako sekretutxoak ezin zaizkio inori kontatu. Umeen eta nire arteko kontuak dira, eta dendan gelditu dira. Ez dira bertatik inoiz irtengo.

Denda itxita ikusterakoan, herritar askok pena handia hartu dute.

Denda honetatik hiru belaunaldi pasatu dira. Ume ziren asko euren seme-alabekin etorri izan dira eta uste dut herritar askorentzat berezia izan dela denda hau. Nik izugarri maite ditut herriko umeak, eta eurek ere asko maite nautela esango nuke. Bai, herritar askok ere pena hartu dute. Azken batean, eurekin oso hartu-eman berezia sortu da Uneibin. Auzoko ume eta gazterik gehienak ezagutzen ditut. Gaur egun ere askoren izenak dakizkit, eta denek agurtzen naute kalean.

Uneibi gozoki-denda 37 urtean egon da zabalik. Umeen kontsumitzeko ohiturak asko aldatu dira?

Bai. Orain urte batzuk donutsak eta susoak izugarri saltzen ziren. Orain, ostera, beste gozoki mota batzuk saltzen izan ditut. Lehen, gainera, ikasle eta irakasleak eskolako jolas-orduan etortzen ziren dendara, eta asteburuetan ere izugarri saltzen nuen. Orain ohiturak aldatu egin dira. Jolas-orduan ez dute kalera irteten, eta asteburuetan ume asko eguna pasatzera joaten dira gurasoekin.

Lau hortza

Markel Sanchez Zelaia Behargina



Miró bat bainugelan

Ez dakit zergatik akordatu naitzen honetaz. Agian zuk ere gogoratuko duzu. 2006a zen, eta telebistan “Caso Malaya” zelakoaren baitan egindako atxiloketen albisteak zeuden kate guztietan. Han, Marbellan, hainbat udal arduradun eta enpresari atzeman zituzten ustelkeria leporatuta. Katramila hartako burua Juan Antonio Roca zen, eta akorduan dut zelan poliziak bere etxea miazterakoan, hainbat aberaskeria aurkitu zituzten bertan: animalia exotiko disekatuak, heliportu bat jardinean, lasterketa zaldiak eta margolari famatuen artelanak. Tartean, eta honek eman zidan atentzioa, Joan Miró margolariaren koadro bat bainugelan eskegita. Margolan bat. Bainugelan.

Agian zerbaitek gogoraziko zidan. Euskararen aldekoatunari Miróren koadro haren antza hartuko nion. Herri honetan denok ei gaudelako euskararen alde. Edo hori diogu. Hori daukagu eskegita gure eraikitako balkoi eta kristaletan, kamisetetan, urtean behineko ekimenetan hori esaten dugu. Gu ere euskararen alde.

Euskararen alde dauden bozeramaileak ETB1en erdaraz, ondo uler dakien. Euskararen aldekoak protokoloak erdaraz bidaltzen, garrantzitsua da eta, euskarazkoak gero etorriko dira, itzultzaileak lana amaitzen duenean. Euskararen alde daudenak bilerak erdaraz dinamizatzen, inork ezer galdu ez dezan, badaezpada. Euskara maite duten komunikabideak erdaraz publikatzen %95 batean, jendearengana heltzeko.

Euskalduntasuna ulertzeko modu menpeko baten alde. Dutzako lurrun artean apurka-apurka usteltzen utzi gura duten zerbaiten alde.



IURRETA

Lanbide Heziketa

www.iurretalhi.eus

idazkaritza@iurretalhi.eus

Tel.: 944 66 88 00

ERDI MAILA

- Administrazio Kudeaketa
- Mekanizazioa
- Ibilgailuen Elektromekanika
- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta
- Telekomunikazio Instalazioak

GOI MAILA

- Administrazio eta Finantzak
- Automozioa
- Mantentze Lan Elektronikoa
- Produkzioaren Programazioa

Euskaraz ikasi eta lan egin!

AURREMATRIKULA Ekainaren 1etik 19ra

